

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

**2020ko irailaren 29ko ebazpenean antzemandako akats aritmetikoa zuzentzeko erabakia, zeinaren bidez ebatzi baitzen Vitoria-Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzen 2020ko deialdi publikoa; 2020ko urriaren 16ko ALHAOan argitaratu zen ebazpena (117. zenbakia, 3001 iragarkia)**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4 artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2020ko abenduaren 23an emandako ebazpena, zeinaren bidez 2020an Vitoria-Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak emateko deialdi publikoa ebazteko 2020ko irailaren 29an emandako ebazpenean antzemandako akats aritmetikoa zuzentzen baita. Hauxe da ebazpenaren edukia:

I. 2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen 2020ko deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zenbakia).

II. "Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 12an egindako bilkuran onetsi zituen Vitoria-Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzen 2020ko programaren deialdi publikoa eta berariazko oinarriak — 2020ko ekainaren 29ko ALHAO, 72 zk. —. Horien arabera, norgehiagoka baliatuko zen laguntzak emateko prozedura gisa eta 40.000,00 euroko zuzkidura izango zuen, 2020ko udal aurrekontuko 08.10.4331.4.7104 partidaren kontura, honela banatuta: 20.000,00 euro 2.1 ildorako, eta 20.000,00 euro 2.2 ildorako.

III. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, 2020ko irailaren 29an ebatzi zuen deialdia udalaren Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak —2020ko urriaren 16ko ALHAO (117. zenbakia, 3001 iragarkia)—, eta honako laguntzak eman zituen deialdiaren 2.2 ildoan:

2.2. ILDOA: BILTZAR-PRODUKTU EDO -ESPERIENTZIAK SORTU ETA GARATZEA, EDO VITORIA-GASTEIZERA BILTZAR-JARDUERAK ERAKARRI EDO HALAKOAK DINAMIZATZEKO EKINTZAK				
ZENBAKIA	IFZ/NAN	LORTUTAKO PUNTUAZIOA	DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKEEN INBERTSIOA	DIRU-LAGUNTZA TEORIKOA
1	B01540137	33,5	13.017,52 euro	3.621,62 euro
2	16285970S	31,5	16.000,00 euro	3.405,41 euro
3	B01157882	30,5	21.255,00 euro	3.297,30 euro
4	B01538388	30	24.000,00 euro	3.243,24 euro
5	B01334192	30	7.275,00 euro	3.243,24 euro
6	B01321090	29,5	20.000,00 euro	3.189,19 euro
<b>Diru-laguntza teorikoaren zenbatekoak guztira</b>				<b>20.000,00 euro</b>

IV. Gerora, aipatutako hiru enpresak borondatez uko egin zioten emandako laguntzari. Uko horiek guztiak berariaz onartu ziren Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpena tarteko.

V. Udalaren Biltzar eta Turismo Zerbitzuak 2020ko abenduaren 22an egindako txostena tarteko, deialdiaren 2.2 ildoan emandako dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko akats aritmetikoa egin zela egiaztatu zen, eta, horrenbestez, zuzentzea proposatzen da, zenbateko zuzenak jarritz, deialdiaren 10. oinarrian horretarako jarritako arauekin bat.

Halaber, baliagarri zegoen zuzkidura ekonomikoa agorturik, itxarote-zerrenda sortzea ere proposatzen da txosten tekniko berean, kreditu baliagarriak sortuz gero erabiltzeko.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan xedatutakoari jarriki, herri administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Era beran, deialdian ezarritako prozeduraren arabera, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak du eskabideak ebazteko eskumena.

Horren haritik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak ebazpen hau eman du, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 12an eskumenak eskuordetzeko hartutako erabakiaren haritik:

Ebatzi du

Lehena. Honako akats zuzenketa egitea, Vitoria-Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoa sortu eta garatzeko aparteko laguntzen deialdi publikoaren 2020ko irailaren 29ko ebazpenaren lehen xedapen puntuan, 2.2 ildoan emandako dirulaguntzen zenbatekoen kalkuluan akats aritmetikoa antzeman dela eta (2020ko urriaren 16ko ALHAO, 117. zk.).

Honela dio:

2.2. ILDOA: BILTZAR-PRODUKTU EDO -ESPERIENTZIAK SORTU ETA GARATZEA, EDO VITORIA-GASTEIZERA BILTZAR-JARDUERAK ERAKARRI EDO HALAKOAK DINAMIZATZEKO EKINTZAK				
ZENBAKIA	IFZ/NAN	LORTUTAKO PUNTUAZIOA	DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKEEN INBERTSIOA	DIRU-LAGUNTZA TEORIKOA
1	B01540137	33,5	13.017,52 euro	3.621,62 euro
2	16285970S	31,5	16.000,00 euro	3.405,41 euro
3	B01157882	30,5	21.255,00 euro	3.297,30 euro
4	B01538388	30	24.000,00 euro	3.243,24 euro
5	B01334192	30	7.275,00 euro	3.243,24 euro
6	B01321090	29,5	20.000,00 euro	3.189,19 euro
<b>Diru-laguntza teorikoaren zenbatekoak guztira</b>				<b>20.000,00 euro</b>

Honela behar du:

2.2. ILDOA: BILTZAR-PRODUKTU EDO -ESPERIENTZIAK SORTU ETA GARATZEA, EDO VITORIA-GASTEIZERA BILTZAR-JARDUERAK ERAKARRI EDO HALAKOAK DINAMIZATZEKO EKINTZAK				
ZENBAKIA	IFZ/NAN	LORTUTAKO PUNTUAZIOA	DIRU-LAGUNTZA JASO	DIRU-LAGUNTZA
1	B01540137	33,5	13.017,52 euro	6.508,76 euro
2	16285970S	31,5	16.000,00 euro	8.000,00 euro
3	B01157882	30,5	21.255,00 euro	5.491,24 euro
<b>Diru-laguntza teorikoaren zenbatekoak guztira</b>				<b>20.000,00 euro</b>

Bigarrena. Deialdiko zuzkidura ekonomikoa agortu delarik, egiaztatu da baldintzak betetzen dituen eskabide batek ez duela diruz lagun daitekeen inbertsioari dagokion dirulaguntza teoriko guztia jasotzerik izan, eta horrenbestez, itxarote-zerrenda hau sortzea proposatzen da, krediturik sortuz gero, hurrenkera honi jarraiki banatzeko:

ZENBAKIA	IFZ/NAN	LORTUTAKO PUNTUAZIOA	DIRU-LAGUNTZATEORIKOA	DIRU-LAGUNTZA
1	B01157882	30,5	10.000,00 euro	4.508,76 euro

Hirugarrena. Ebazpena interesdunei jakinaraztea, ALHAOn argitaratuta.”

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 28an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria*  
**LEIRE GÓMEZ ALCALÁ**